Denbora-aurrekontuen Inkestaren mikrodatuak. Denboraren erabilerari buruzko nazioarteko fitxategi harmonizatuak (MTUS)

Denboraren Erabileraren Nazioarteko Ikerketaren arloan, Eustatek Euskal AEko denboraren erabilerari buruzko mikrodatu-fitxategiak dakartza, Oxford-eko unibertsitateko **Centre for Time Use Research-ek** (Denboraren erabilera ikertzeko zentroak) harmonizatuak.

Mikrodatu-fitxategi hauek **Multinational Time Use Study-k (MTUS)** zabaldutako denbora-erabilerari buruzko inkesten datu-base bateko parte dira. Datu-base horrek 1960ko hamarralditik aurrerako inkestak biltzen ditu. Sail komunen datu-multzoak dauzka, zenbait estatutakoak, biztanleek egunean zehar denbora nola banatzen duten 41 edo 69 jardueratan (MTUS summary fitxategiak). Azken bertsioetan egunean zeharreko jarduera-saioen iraupena ere agertzen da (MTUS-episode fitxategiak).

2012ko urrian Oxfordeko unibertsitateko datu-base harmonizatura Eustatek eginiko Euskal AEko Denbora Aurrekontuen Inkestako datuak bateratzen dira. Hona hemen datu harmonizatuak (MTUS) badiren eremu geografiko eta erreferentzi-aldiak:

Herrialdea	**Aldiak**
Australia	1974, 1987, 1992, 1997, 2006
Austria	1992
Belgika	1966
Bulgaria	1988
Kanada	1971-1972, 1981, 1986, 1992, 1998
Danimarka	1964, 1987
Finlandia	1979, 1987-1988, 1999-2000
Frantzia	1966, 1974-1975, 1988-1999
Alemania	1965-1966, 1991-1992, 2001-2002
Hungaria	1965, 1976-1977
Israel	1991-1992
Italia	1979-1980, 1989, 2002-2003
Herbehereak	1975, 1980, 1985, 1990, 1995, 2000, 2005
Norvegia	1971-1972, 1980-1981, 1990-1991, 2000-2001

Herrialdea	Aldiak
Eslovenia	2000-2001
Hegoafrika	2000
Espainia	1992-1993, 2009-2010
Euskal AE	1992-1993, 1997-1998, 2002-2003, 2008
Suedia	1990-1991, 2000-2001
Erresuma Batua	1961, 1974-1975, 1983-1984, 1987, 1995, 2000-2001, 2005
Estatu Batuak	1965-1966, 1975-1976, 1985, 1992-1994, 1994-1995, 1998-2001, 2003-2011

Fitxategiak 3 bertsiotan daude eskuragarri: Komek banatutako testu-fitxategiak (CSV), SPSS eta STATA.

Ondoren, Oxfordeko unibertsitaterako esteka batzuk:

- Euskadiko fitxategien bateraketa: ***http://www.timeuse.org/home***
- MTUS-erabiltzailearen gida, MTUSen garapena eta potentziala: ***http://www.timeuse.org/mtus/guide***
- Edizio bakoitzaren fitxa:

  EPT2008: ***http://www-2009.timeuse.org/information/studies/data/spain-2008-2009.php***

  EPT2002-3: ***http://www-2009.timeuse.org/information/studies/data/spain-2002-2003b.php***

  EPT1997-8: ***http://www-2009.timeuse.org/information/studies/data/spain-1997-1998.php***

  EPT1992-3: ***http://www-2009.timeuse.org/information/studies/data/spain-1992-1993.php***

- Kodetze-prozedurei buruzko dokumentazioa (MTUS coding procedures):

  http://www.timeuse.org/mtus/conversion

- Eustaten Denbora Aurrekontuen Inkestaren edizio bakoitzerako dokumentazio zehatza: 1992-3 (5187), 1997-8 (5188), 2002-2 (5189) y 2008)5190), Spain (Basque Region) Survey Documentation (README_Spain_aaaa):

  http://www.timeuse.org/mtus/surveys/ESP

- Fitxategien aldagai eta kategorien etiketei buruzko dokumentazioa (SPSS, STATA, SAS):

  http://www.timeuse.org/mtus/contributions